

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4809

135/2018 DEKRETUA, irailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduerari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren argitaratze-jarduera funtsezko tresna da herritarrei erakunde publikoen jarduna erakusteko; hala ere, teknologia digital berriek sakon aldatu dituzte ekoizpen- eta banaketa-bideak, bai eta herritarren artean argitalpenak zabaltzeko moduak ere.

Orain arte, 67/1998 Dekretuak arautu du administrazio publikoaren argitaratze-jarduera, baina dekretu hori zaharkituta geratu da teknologia berriei dagokienez, eta, hortaz, erabat berrikusi beharra dago. Gainera, esperientziak erakutsi du zeregin-banaketa berraztertu beharra dagoela argitaratze-ekoizpenaren prozesu osoan, bai eta jabetza intelektualaren eta garbiketaren arloko eskumenak berrikusi ere.

Hain zuzen ere, dekretu honen bidez erantzun nahi zaie berrikuntza teknologiko horiei eta haien eraginez argitaratze-jardueraren operadoreen artean sortzen diren interakzio berriei.

I. kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduera arautzen duten xedapen orokorrak jasotzen dira, eta berrikuntza azpimarragarri gisa, kontzeptu batzuk jasotzen dira, argitaratze-lanerako beharrezko diren prozedurak definitzen laguntzeko.

II. kapituluan, berriz, zereginak banatzen dira argitaratze-jardueran parte hartzen duten agenteen artean. Administrazio Orokorreko sailek argitaratze-ekimena daukate, dituzten eskumen substantiboak gauzatzearekin lotuta, eta Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagozkio ekoizpen-, banatze- eta salmenta-lanak. Horrela, kalitate-, koherentzia- eta uniformetasun-maila handiagoa lortuko da, bai eta aurrezpen ekonomiko handiagoa ere. Erakunde autonomoek, berriz, aukeran izango dute haien argitalpenak zuzenean ekoitzi eta merkaturatzea edo Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bidez egitea. Lehenago Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak betetzen zituen zereginak argitaratze-jardueraren arloko eskumena duen saileko titularrak hartuko ditu bere gain. Izan ere, batzorde hori desagertu zen, martxoaren 22ko 38/2011 Dekretuaren bitartez (38/2011 Dekretua, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea indargabetzen duena).

III. kapituluan, argitaratze-jardueraren faseak aztertzen dira, ekimenetik merkaturatzeraino, ekoizpen- eta garbiketa-lanak tartean direla. Kapitulu horretan ezartzen dira, besteak beste, zer ildok gidatuko duen argitaratze-lana, bai eta hizkuntzaren erabilera, argitaratze-estiloa eta publikoarentzako salmenta-prezioaren zehaztapena ere.

Azkenik, IV. kapituluan arautzen dira Argitalpenen Erregistroa –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduera osoa ezagutzeko aukera ematen duena–, Gordailu Funtsa eta lantaldeak.

Horren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko irailaren 25ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek egiten duten argitaratze-jarduera arautzen da, euskarria edozein dela ere.

2. artikulua.– Esparrua.

1.– Dekretu hau, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari aplikatuko zaio.

2.– Halaber, erakunde autonomoei aplikatuko zaie, baldin eta argitaratze-jarduera Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bitartez egitea aukeratzen badute. Kontuan hartu beharra dago, hala ere, argitalpenak azoka espezializatueta merkaturatzeko eta saltzeko jarduera beti dagokiola Argitalpen Zerbitzu Nagusiari, eta dekretu honetako hirugarren kapituluaren hirugarren ataleko dagozkion xedapenak aplikatuko zaizkio jarduera horri.

3.– Dekretu hau ez da aplikatuko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Ertzaintzaren Albistarian, publizitate-kanpainetako materialetan eta herritar guztientzat edo haien sektore batzuentzat ez diren argitalpenetan.

3. artikulua.– Printzipio orokorrak.

Argitaratze-jarduera printzipio orokor hauekin bat etorritz egingo da:

a) Arrazionaltasuna eta koherentzia: argitalpenak zer sektoreri zuzentzen zaizkion, haren interes publikoari egokitu behar zaizkio, eta lotura izan behar dute organo sustatzailearen ekintza publikoarekin.

b) Kalitatea eta homogeneousutasuna: bereziki zainduko dira argitalpenen estiloa, ordena eta aurkezpena, eta ildo uniforme gordeko da, batez ere argitalpen seriatuetan eta bildumetan, eta apirilaren 27ko 318/1999 Dekretua beteko da, zeinak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde-Nortasunaren Eskuliburua arautzen baitu.

c) Koordinazioa: organoen argitaratze-jarduerak jarraibide orokor batzuen barruan garatu behar dira, bakoitzaren eginkizunak errespetatuz eta bikoiztasunik sortu gabe.

d) Euskararen erabilera normalizazioa: argitalpenak sustatzen dituzten organoek euskararen agerpena bultzatuko dute argitalpen horietan, euskararen erabilera orokortzen ahaleginduko dira, eta Euskararen Erabilera Arautzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea betetzen dela ziurtatuko dute.

e) Eraginkortasuna eta ekonomia: argitalpen baten edizioarekin lortu nahi diren helburuek zabal-kundea, prestakuntza edo beste batzuk— haren kostuak justifikatu behar dituzte.

f) Hizkuntzaren erabilera zuzena: saihestu egingo da hizkuntzaren erabilera sexista edo edozein eskubide urratzen duena.

g) Ingurumenarekiko errespetua: argitaratze-jarduera arautzeko, iraunkortasun-irizpideak eta ingurumenaren babesa aplikatuko dira, hornitzaileen kontratazioari eta argitalpenaren ekoizpean erabilitako materialei dagokienez.

4. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

Argitalpenen katalogoa: zerrenda ordenatu bat da, non editorea dela-eta edo beste arrazoi bategatik elkarrekin lotuta dauden argitalpenak jasotzen diren, argitalpenen ezaugarri nagusiak deskribatzen diren, eta, batzuetan, haien edukia laburtzen den.

Koedizioa: bi pertsona fisiko edo juridikok edo gehiagok sustatutako eta finantzatutako edizio-prozesua.

Kolaborazioa: pertsona fisiko edo juridiko batek nagusiki beste batek sustatutako eta finantzatutako edizio-prozesu batean parte hartzea.

Merkaturatzea: banaketa-baldintza eta -bide egokiak jartzea, produktu bat salgai jartzeko.

Kopia-eskubidea: argitalpen bat edozein bidez, edozein euskarritan eta nahi adina aldiz erreproduzitzeko ahalmena.

Hedapena: argitalpen bat salmenta bidez edo doan jendarteratzearen ekintza eta ondorioa.

Banaketa: prozesu bat da, non pertsona fisiko edo juridiko batek argitalpenak jaso, garraiatu, banatu eta birjartzen dituen zenbait salmenta-puntutan, zabalkundea erraztearren.

Edizioa: prozesu tekniko eta industrialen multzo bat, lan zientifiko, literario, artistiko edo beste modu bateko bat argitalpen bihurtzen duena, haren berri ematearren edo hura zabaltzearren.

Argitaletxea: pertsona fisikoa edo juridikoa, lan zientifiko, literario, artistiko edo beste modu bateko lan bat argitalpen bihurtzeko beharrezkoak diren prozesu teknikoak kudeatzen eta, hala badagokio, egiten edo enkargatzen dituen.

Garbiketa: prozesu bat da, non dokumentuak deuseztatzen edo ezabatzen diren, haiek berreikitzea eta ondoren erabiltzea eragozten duen edozein bidez.

Argitaratze-ekimena: lan jakin bat argitaratzeko erabakia.

Argitalpenak ekoiztea: argitalpen bat egiteko eta haren aurrekontua bideratzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta materialak errazteko prozesua da.

Argitalpena: lan zientifiko, literario, artistiko edo beste modu bateko lana, originala, behin-betiko eta osoa, irakurtzekoa den euskarri batez komunikatzen dena; halaber, material inprimatuak, ikusizkoak, entzunezkoak edo multimedialak, argitaratzen direnak bai solte, bai liburu edo argitalpen seriatu baten osagarri gisa.

Argitalpen digitala: euskarri elektronikoa egiten dena (euskarri digital ere deitzen zaio).

Argitalpen seriatua: aletan editatzen dena; aleek izenburu berbera dute, kadentzia erregularra, normalean hurrenkera kronologikoan eta zenbakituta egoten dira, eta epe jakinik gabe agertzen jarraitzeko helburua dute.

Berrargitalpena: aurkezpena, egitura eta/edo edukia aldatu zaion argitalpen bat berriz ere edizio-prozesuan sartzearen ekintza eta ondorioa.

Berrinprimatzea: argitalpen bat inolako aldaketarik egin gabe berriz ere inprimatzearen ekintza eta ondorioa. Argitalpen bat euskarri analogikotik euskarri digitalean erreproduzitzea ere berrinprimatzetzat jotzen da.

Euskarri analogikoa: informazioa magnitude fisiko baten bidez aurkezten duen bitartekoa.

Euskarri digitala: material fisikorik erabili gabe informazio elektronikoa gordetzen eta transmitzen uzten duen bitartekoa.

5. artikulua.– Argitaratze-jarduera planifikatzea.

Administrazio Orokorren sailek, urteko argitalpen-programa bat finkatze aldera, argitalpenen arloan duten aurreikuspena helaraziko diote Argitalpen Zerbitzu Nagusiari, urteko azken hiruhilekoan. Argitalpenen Zerbitzu Nagusiak, behin informazio hori jasota, urteko argitalpen-programa prestatuko du, eta argitaratze-jardueraren arloko eskumena duen saileko titularrari helaraziko dio, onar dezan.

Erakunde autonomoen aurreikuspenak erakundeok atxikita dauden saileko urteko programetan txertatuko dira.

II. KAPITULUA

ANTOLAMENDUA ETA EGINKIZUNAK

6. artikulua.– Antolaketa eta eginkizunen banaketa.

Hurrengo artikuluetan zehazten den eginkizun-banaketari jarraituz gauzatuko dituzte argitaratze-arloko jarduerak bai argitaratze-jardueraren eskumena duen saileko titularrak bai Argitalpen Zerbitzu Nagusiak, bai eta Administrazio Orokorreko sailek eta erakunde autonomoek ere, hargatik eragotzi gabe jabetza-intelektualari lotutako kontratuak izenpetzeari buruz eta jabetza intelektuaren eskubideak babesteari buruz. 13. artikuluan ezarritakoa betetzea.

7. artikulua.– Argitaratze-arloko eskumena duen saila.

Argitaratze-jardueraren eskumena duen saileko titularrak onartuko ditu urteko argitalpen-programa eta urteko memoria.

8. artikulua.– Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Argitalpen Zerbitzu Nagusia –hierarkikoki argitaratze-jardueraren arloko eskumena duen sailean baliabide orokorren arloko eskumena duen zuzendaritzaren mende dagoen unitate administratiboa– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren argitaratze-zigilu bakarra da, eta eginkizun hauek ditu:

a) Argitaratze-jarduera koordinatzea, 3. artikuluan adierazten diren printzipio orokorrak betetzen direla zaintzea eta urteko argitalpen-programa prestatzea.

b) Argitaratze-jardueraren segimendua eta ebaluazioa egitea, urteko memoria eginez; memoria hori sailaren titularrari aurkeztuko zaio, onar dezan.

c) Argitalpenak berrinprimatzea, hargatik eragotzi gabe argitalpen horiek sustatu dituzten sailek eta entitateek ere hori bera erabakitzea.

d) Argitaratze-ekimena baliatzea, Eusko Legebiltzarrean emandako lege-testuak eta arau-xedapenen bildumak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako arau-xedapenak argitaratzeko, ezertan eragotzi gabe beste zenbait erakundek xedapen espezifiko batzuen bidez eskuratutako eskumena baliatzea.

e) Sailei eta erakunde autonomoei laguntza teknikoa ematea, argitaratze-jardueran dauzkaten eginkizunak zuzen bete ditzaten.

f) Sailek eta, hala badagokio, erakunde autonomoek sustatutako argitalpenen ekoizpen-lanak gauzatzea, eta horiek banatzea, dekretu honetan ezarritakoari jarraituz. Horretarako, baliabide propioak nahikoa ez direnean, dagozkion kontratazio-espeditenteak tramitatuko dira, bata bestearen ondorengo atazak zuzen egin daitezzen, originalak hartzen direnetik hasi eta argitalpenak herritarren esku jartzen diren arte.

g) Lege-gordailuaren zenbakia, ISBN, ISSN eta argitalpenak zuzen editatzeko behar diren eskakizun guztiak tramitatzea, eta Argitalpen Zerbitzu Nagusiak egindako argitalpenen publikoarentzako salmenta-prezioa proposatzea.

h) Argitalpenen katalogo orokorra eguneratzea eta, hala behar izanez gero, editatzea, eta egoki deritzen zabalkunde- eta promozio-kanpainak egitea, eta, hala badagokio, sailek egindakoak koordinatzea.

i) Argitalpenen biltegia kudeatzea, eta komeni diren argitalpen-trukeak hitzartzea, dekretu honetan xedatutakoa bezel.

j) Argitalpen Erregistroa kudeatzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailen ekimenez egindako argitalpenen garbiketa egin behar den erabakitzea eta gauzatzea, bai eta erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatuko ente publikoen ekimenez egindakoen garbiketa egitea ere.

9. artikulua.– Administrazio Orokorreko sailak.

1.– Sailek eginkizun hauek betetzen dituzte beren argitaratze-jardueran:

a) Argitalpenen edizioa hitzartzea eta originalak prestatzea (dela edizioa, koedizioa, kolaborazioa edo beste modu bat). Horretaz gainera, lankidetzan aritzea Euskadiko ondarearen ondasunak eta eskubideak zaintzeko zeregina esleitua duen saileko organoarekin, hark ziurta dezan betetzen direla jabetza intelektualaren arloan indarrean dauden xedapenak.

b) Behar den beste kreditu gordetzea, argitalpena ekoizteak eskatzen dituen betebeharrei erantzuteko.

c) Testuak zuzentzea, egindako proben arabera.

d) Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin koordinatzea, egiten dituzten hedapen-kanpainetan.

2.– Sailen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan zehaztu daiteke zer organori dagozkion aurreko paragrafoetan zerrendatutako eginkizunak. Zehaztu ezean, Zerbitzu Zuzendaritzak edo saileko organo parekideak beteko ditu eginkizun horiek.

10. artikulua.– Erakunde autonomoak.

Beren argitalpenen ekimena, ekoizpena eta merkaturatzea dira erakunde autonomoen eginkizunak, alde batera utzita argitalpen horiek azoka espezializatuetan hedatzea eta saltzea. Hala ere, aukera izango dute beren argitalpenak Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bidez ekoizteko, eta kolaborazioan merkaturatu ahal izango dituzte edo Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bidez, dekretu honen 20. artikulutik 23.era bitartean ezarritakoari jarraituz.

III. KAPITULUA

ARGITARATZE-JARDUERA

LEHENENGO ATALA

ARGITARATZE-EKIMENA

11. artikulua.– Argitaratze-ekimena.

1.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiak baliatuko du argitaratze-ekimena, dekretu honen 8.d) artikuluko kasuetan.

2.– Administrazio Orokorreko sailek eta erakunde autonomoek eta organismo autonomoek hurrenez hurren 9. artikuluan eta 10. artikuluan ezarritakoaren arabera baliatuko dute beren argitalpenak argitaratzeko ekimena.

12. artikulua.– Berrargitalpenak eta berrinprimatzeak.

1.– Argitalpenak berrargitaratzeko ekimena hura baliatzen duen sailari edo erakunde autonomoari dagokio.

2.– Argitalpenak berrinprimatzeko ekimena, berriz, Argitalpen Zerbitzu Nagusiarena eta argitalpena sustatu duen sail edo erakunde autonomoarena da.

Argitalpen bat berrinprimatzeko, justifikatu behar da lan beraren aurreko edizioa agortuta dagoela.

13. artikulua.– Administrazioaren eskubideak.

1.– Argitaratze-ekimena duten Administrazio Orokorreko sailek eta erakunde autonomoek eskatuko diote ondare-arloko eskumena duen saileko dagokion organoari izenpetu dezala kasuan kasuko obraren jabetza intelektualari dagozkion egile, edizio, itzulpen eta beste zernahi kontratu, organo horrek Administrazioaren eskubideak babes ditzan.

2.– Sail eta erakunde autonomo sustatzaileek aurreko paragrafoan aipatzen diren erregistro-kontratu edo -ziurtagirien kopiak eman beharko dizkiote Argitalpen Zerbitzu Nagusiari, zerbitzu horrek hala eskatuta.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak editatutako argitalpenen kopia-eskubidea Administrazioari dago, ezertan eragotzi gabe hark, dagokien sail edo entitate sustatzaileen bidez, argitalpenak Creative Commons lizentziekin edo etorkizunean egon daitezkeen beste lizentzia aitortu batzuekin zabaltzea erabakitzea.

14. artikulua.– Egile-eskubideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen argitalpenen egile-eskubideak apirilaren 12ko 1/1966 Legegintzako Errege Dekretuaz arautuko dira (1/1966 Legegintzako Errege Dekretua, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenak arautu, argituz eta bateratuz).

15. artikulua.– Argitalpenen hizkuntza.

1.– Administrazio Orokorreko sailek eta erakunde autonomoek sustatutako argitalpenetan, euskararen agerpenaren ehunekoa bete behar da, indarrean den araudiak horri buruz ezartzen duenaren arabera.

2.– Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira bai Eusko Legebiltzarrean emandako lege-tes-tuak eta lege-xedapenen bildumak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako xedapenenak, bai gidaliburu, katalogo eta bestelako argitalpen dibulgaziozkoak.

3.– Euskararen agerpena ez da izango % 50etik beherakoa Administrazio Orokorreko sailek eta erakunde autonomoek sustatutako dibulgaziozko argitalpen seriatu edo orokorretan, baldin eta Argitalpen Zerbitzu Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan argitaratzen dituenak badira eta hedapena eremu horretara mugatuta badute.

4.– Gure autonomia-erkidegoaren lurraldetik kanpora heda daitezkeen argitalpen seriatu espe-zializatuen edizioan (besteak beste, zientifikoak, literarioak edo juridikoak) eta izaera edo eduki bera duten eta lurralde horretatik kanpokoak diren argitalpen originalen edizioan, euskararen erabilera sustatuko da, argitalpenak editatzean hizkuntza-ehuneko zehatzik bete beharrik gabe. Baldin eta argitalpen horietan artikulua, kapitulu edo zatien laburpenak jasotzen badira, laburpen horiek euskaraz ere egon behar dira.

BIGARREN ATALA

ARGITALPENEN EKOIZPENA

16. artikulua.– Ekoizpenaren arduraduna.

1.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren ardura da Administrazio Orokorreko sailek sustatutako argi-talpenen ekoizpen-lanak egitea.

2.– Erakunde autonomoek autonomia dute lan horiek egiteko; hala ere, Argitalpen Zerbitzu Nagusira jo dezakete horretarako.

3.– Argitaratze-ekimena baliatzen duten sailek eta erakunde autonomoek behar diren aurre-kontu-aurreikuspenak eta dagokien kreditu-erreserbak egingo dituzte, argitalpenak ekoizteak ekarritako ordainketa-betebeharrei erantzuteko.

4.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitalpenen ekoizpen-lanekiko duen ardura inoiz ere ez da zabalduko argitalpenen edukiaren zehaztasuna egiaztatzen.

17. artikulua.– Erakunde-nortasunari buruzko arauak eta hizkuntzaren erabilera.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiko argitalpenetan, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruz ezarritako arauak bete behar dira (318/1999 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde-Nortasunaren Eskuliburua arautzen duena).

Halaber, Argitalpen Zerbitzu Nagusiak bereziki zainduko du hizkuntzaren erabilera zuzena, era-bilera sexista eta bereziki zaugarria den edozein kolektibo sozialen eskubideen urraketa saihestuz.

18. artikulua.– Argitalpenen euskarria.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak, kontuan hartuta zer herritarrentzat diren argitalpenak, teknologia digitaletan oinarritutako euskarriak erabiltzea bultzatuko du, bai eta material birziklatuak eta ingu-rumenari kalterik egiten ez diotenak erabiltzea ere.

19. artikulua.– Ediziorako betekizunak.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak behar diren tramitazioak egingo ditu, lege-gordailuaren zenbakia, ISBN, ISSN lortzeko, bai eta argitalpenak zuzen editatzeko beharrezkoak diren betekizunetarako.

HIRUGARREN ATALA

ARGITALPENEN MERKATURATZEA

20. artikulua.– Argitalpenen hedapena.

1.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitalpenak hedatzeko kanpainak egin ditzake, egoki deritzonean.

Hala ere, sail sustatzaileek eta erakunde autonomoek publizitate-ekintzak egin ditzakete Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin koordinatuta.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak katalogo orokor bat mantenduko du eguneratuta, berak zabaltze-koak diren argitalpenak bilduta.

2.– Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumena da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitalpenak azoka espezializatuetan zabaltzea eta saltzea, eta Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bitartez gauzatuko du eskumen hori.

21. artikulua.– Prezioaren zehaztapena.

1.– Publikoarentzako salmenta-prezioa finkatuta izango dute argitalpen guztiek, osorik doan banatzeko direnek izan ezik. Horretarako, Argitalpen Zerbitzu Nagusiak sail sustatzailearekin adostuko du berak editatutako argitalpenen publikoarentzako salmenta-prezioa, eta hala jasoko da Publikoarentzako Salmenta Prezioen dagokion aginduan, argitaratze-jardueraren eskumena duen sailaren titularrak onartu ondoren.

Erakunde autonomoek jendearentzako salmenta-prezioa ezarriko dute beren argitalpenetan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen arabera finkatuko dira argitalpenen publikoarentzako salmenta-prezioak.

22. artikulua.– Argitalpenen salmenta.

1.– Argitalpenen Zerbitzu Nagusiak editatutako argitalpenen salmenta kudeatzea zerbitzuari berari dagokio. Zuzenean, enpresa banatzaileen bidez eta online egin daiteke salmenta.

2.– Erakunde autonomoek beren salmenta-bitarteko propioak ezar ditzakete. Banatzaileen bidez saltzeko, Argitalpen Zerbitzu Nagusiak ezarritako bideak erabil ditzakete.

3.– Erakunde autonomoek sustatutako argitalpenen salmenten bidez Argitalpen Zerbitzu Nagusiak lortutako diru-sarrerak erakunde horien sarrera-aurrekontuari egotziko zaizkio kontabilitateari dagokionez.

23. artikulua.– Argitalpenen banaketa.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagokio bere argitalpenen banaketa kudeatzea. Horretarako, behin baliabide propioen gaitasuna agortuta, behar diren kontratuak izenpetuko dira.

24. artikulua.– Doako hedapena.

Argitalpenen doako banaketaren oinarrian interes publikoa edo soziala dago, eta irizpide murriztaileaz aplikatuko da, kostuak berreskuratzeko helburuak gidatu behar baitu argitaratze-jarduera. ISBN edo ISSN daukaten argitalpenak beren araudi espezifikoan xedatuaren arabera banatuko dira.

25. artikulua.– Trukeak.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagokio beste entitate publiko edo pribatu batzuekin trukeak ezartzea, Eusko Jaurlaritzako sailek sustatutako argitalpenei dagokienez. Erakunde autonomoek izango dute ahalmen hori beren argitalpenei dagokienez.

LAUGARREN ATALA

ARGITALPENEN GARBIKETA

26. artikulua.– Eskumena.

1.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiak aukera izango du berak editatutako liburuak garbitzeko, biltegitarte-kostuak murrizte aldera. Horretarako, aldez aurretik kontsulta egin beharko die liburuok sustatu dituzten sail eta erakunde autonomoei.

2.– Erakunde autonomoek Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bitartez garbitu ditzakete haren bidez editatu dituzten argitalpenak.

27. artikulua.– Argitalpenak garbitzeko irizpideak.

Euskarri fisikoan dauden argitalpenak garbitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Tiradaren % 50 garbitu daiteke 5 urte baino gehiagoko antzintasuna duten argitalpenetan.

Tirada osoa garbitu daiteke 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten argitalpenetan.

Hala ere, Argitalpen Zerbitzu Nagusiak ahalmena du tirada bat osorik edo partzialki gordetzeko, argitalpen jakin batek izan dezakeen interes berezia kontuan hartuta.

Dena dela, tirada bakoitzaren lagin-ale bat gordeko da beti, dekretu honen 29. artikuluan xedatzen denaren arabera.

IV. KAPITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

28. artikulua.– Argitalpenen erregistroa.

1.– Argitalpenen Erregistroan, sailek eta erakunde autonomoek egindako edizio guztiak sartu behar dira, eta argitalpen bakoitza guztiz identifikatzeko behar diren erreferentziak jaso.

2.– Argitalpen Zerbitzu Nagusiak kudeatuko du Argitalpenen Erregistroa.

29. artikulua.– Funts Gordailua.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak Funts Gordailuan gordeko du sailek, eta erakunde autonomoek editatutako argitalpen guztien ale bana.

30. artikulua.– Lantaldeak.

Baliabide Orokorren zuzendaritzapean, lantaldeak era daitezke argitaratze-jardueraren egoera analizatzeko, nola hobetu eta zer aldatu aztertzeko, eta sailen eta erakunde autonomoen artean esperientziak trukatzeko.

2018ko urriaren 3a, asteazkena

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu honek indargabetu egiten du 67/1998 Dekretua, apirilaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitalpenak arautzen dituenak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua aldatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzen duena.

Honela idatzita geratzen da uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 15. artikuluko 2. paragrafoa (116/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzen duena).

«2.– Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduerari buruzkoa».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Apirilaren 11ko 71/2017 Dekretua aldatzen da, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Honela idatzita geratzen da apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 21. artikuluko h) letra (71/2017 Dekretua, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena):

«h) Argitalpen Zerbitzu Nagusia zuzentzea eta argitalpenak arautzen dituen Dekretuan Sailari argitalpen arloan esleitutako egitekoak betetzea».

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Erregelamenduz garatzea.

Argitaratze-jardueraren eskumena duen saileko titularrari baimena ematen zaio dekretu hau garatzeko behar diren beste xedapen emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 25ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.